


**Fitxa teknikoa / Ficha técnica**

Izenburua / Título: **Amamaren grafitiak**
Egilea / Autor: **Toti Martínez de Lezea**
Saila / Colección: Narratiba, 103
ISBN / EAN: 978-84-9109-227-8
Salneurria / Precio: 15 € (BEZ barne – IVA incluido)
Orri kopurua / Nº páginas:136
Formatua / Formato: 15 x 22 cm

9 788491 092278

## Lana / La obra

60 urte eta gehiagoko etxekoandre baten bakarrizketa

**Etxekoandrea** da, Wikipedia unibertsalaren arabera, etxeko lanak jardun nagusi duen emakumea eta, besteak beste, zeregin hauek dituena: seme-alaben hezkuntza eta zaintzaren ardura, etxeko garbiketak, elikagaien erosketa eta prestaera, familiako aurrekontuaren kudeatze osoa edo zatikakoa, etxean egiten diren lanen gainbegiratzea eta abar eta adar. Jardun ikusezina 24 orduz egiten duena, urteko 365 egunetan, oporrik gabe eta despidorik gabe.

Urte batzuk igaro dira Totik *Los grafitis de mamá* gaztelaniaz argitaratu zuela. Gustura asko irakurri zuten hainbat emakumek eta ez gizonezko gutxik liburu hura, non andre "arrunt" baten, etxetik kanpo lanik egiten ez duen etxekoandre baten komeriak irakur daitezkeen umorezko bakarrizketa batean. Ama hura amama bihurtu da, aldaketa batzuk egin behar izan zaizkio testuari, baina gaurkotasunik ez du galdu eta graziarik ere ez aurreneko aldiz euskaraz argitaratzen den bertsio honek.